

1 FASEA (maiatzaren 11tik aurrera)

Txikizkako establezimendu eta merkataritza-lokalak eta antzeko zerbitzuak ematen dituztenak jendearentzat zabaltzeko baldintzak



Alarma-egoera aldarrikatu eta gero euren jarduera eten behar izan daberen txikizkako establezimendu eta merkataritza-lokal guztiak eta zerbitzu-jarduera profesionalak, jendearentzat barriz zabaltzeko ahal izango dira, 400 metro karratutik gorako azalera daberenak izan ezik.



Lokal honeen aforoa %30era mugatuko da. Bezeroen arteko 2 metroko distantzia bermatu beharko da. Distantzia hori bermatzea ezinezko dan lokalen kasuan, bezero bakarra egon ahalko da establezimenduaren barruan. Lokalaren gehienezko aforoa zein dan bistan jarri beharko da.



65 urtetik gorakoak lehentasunez hartzeko ordutegia ipiniko da



Jendearentzat zabaltzen daberen establezimendu eta lokalak, gutxienez egunean birritan, garbitu eta desinfektatuko dira. Arreta bereziz garbitu eta desinfektatuko dira sarrien ukitzen diran gainazalak.



Bezeroek ezingo dabez establezimenduetako komunak erabili.



Establezimendu eta lokal guztiak eduki beharko dabez sastar-ontziak, ahal dala tapa eta pedaldunak, eurretan zapi eta bestelako erabili eta botatzeko gauzak bota ahal izateko.



Langile guztiak arrisku-mailari egokitutako norbera babesteko ekipoa daukiezala eta gel hidroalkoholkoa etengabe daukiela ziurtatuko da.



Bezeroari arreta egiten zaion denboran, saltzaile edo zerbitzua eskaintzen duen langilearen eta bezeroaren artean gutxienez metro bateko distantzia egon beharko da babes elementu edo hesiak daudenean, eta holakorik ez dagoenean, gutxienez 2 metrokoa.



Pertsonen arteko segurtasun tarterik bermatu ezin den zerbitzuetan, langilea eta bezeroa babestuta daudela bermatzeko, dagokion norbera babesteko ekipoa erabili beharko dira.



Establezimendu eta lokaletan jendearentzako gel hidroalkoholikoak ipiniko dira eskuragarri.



Ehungintzako merkataritza-sektoreko, arropa-konponketako eta antzeko establezimenduetan probagelak pertsona bakar batek erabili beharko ditu, eta, erabili ondoren, garbitu eta desinfektatu egingo dira.



Bezero batek erosiko ez dauan jantzi bat probatuko baleu, establezimenduko titularrak jantzi hori higienizatzeke neurriak hartu beharko dauz.